



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2012KO EKAINAREN 29KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.06.29.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.,

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Zangozako Udala: alzhemerrari buruzko aitorpena.
- 3.-Gaindegia behatokia: diru laguntza eskaera.
- 4.-Olaztiko Udalak bidalitako aitorpena.
- 5.-Olaztin erraustegia jartzeko kontrako mozioa.
- 6.-Ttakun Kultur Elkarte: kanpaldi ibiltaria antolatze eskaera.
- 7.-Arantzako ehiza kotoa.
- 8.-2012ko bestak.
- 9.-Udaleko arkitektoen txostenak.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko ekainaren 1ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ZANGOZAKO UDALA: ALZHEIMERRARI BURUZKO AITORPENA.

Ikusirik Zangozako Udalak bidalitako aitorpena alzhemerrari buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako aitorpena onartzea eta bat egitea Zangozako Udalarekin.

3.-GAINDEGIA BEHATOKIA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Gaindegia behatokiak aurkeztutako idatzia eta diru laguntza eskaera.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dagoela horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaindegia behatokiari diru laguntzarik ez ematea, aipatutako arrazoiarengatik

4.-OLAZTIKO UDALAK BIDALITAKO AITORPENA.

Ikusirik Olaztiko Udalak bidalitako adierazpena. Nafarroako Gobernuak PSIS bat onartzeko asmoaren aurrean, Olaztiko zementu fabrikari erraustegi bat ezartzeko.

Ikusirik adierazpenaren edukia:

“ 1.-Udalak PSIS erabat gaitzesten du, udalez gairik hirigintza figura berezi hura iruzurrez erabili baita, Udalaren eskumenak gutxietsiz. Izan ere, haien helburua da merkataritzako proiektu pribatu huts bat Olaztiko Udalerriari ezartzea, bertako herritarren onarpena eta iritzia erabat bazter utzirik. Bere eskumenen esparruarekin erabateko errespetua eskatzeaz gainera, Udalak jakinarazten du indar guztiekin defendatuko dituela berezko duen erakunde-autonomia eta kalitatezko ingurumena eta osasun publikoa izateko herritarrek duten eskubidea.

2.-Udalak ezin du onartu Olaztikoa bigarren mailako Udala izanen balitz bezala inork hartzea. Eta halakoa izan behar du jarrerak, kontuan hartzen badugu Tuteran eta Tafallan erretzeko/balioztatzeko proiektu bat lehen baztertu zuten alderdi politiko berberak Olaztiko Portland zementu-lantegiaren PSIS hura bultzatzen ari direla gaur egun.

3.-Udalak Hiri Hondakinen Plan berria eskatzen du, hainbestearinoko gaitzespen pisten ez duena. Era berean, herritarrek aukera izan beharko dute plan horren gaineko eztabaidan parte hartzeko, Europar Batasunak exijitzen duen bezala.

4.-“ Mugak Batera” Plataformak aurkeztu eta Olaztiko Udalak maiatzaren 30ean onartu zuen mozioa bidaliko zaizkie Nafarroako gainerako Udaleei, hura eztabaidatu eta onartu ondoren Olaztiko Udalarekiko elkartasuna adierazteko aukera izan dezaten”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Olaztiko udalak bidalitako adierazpena onartzea.

2) Olaztiko Udalari elkartasuna adieraztea.

5.-OLAZTIN ERRAUSTEGIA JARTZEKO KONTRAKO MOZIOA.

Ikusirik Olaztiko herriari erraustegia jartzeko kontrako mozioaren edukia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Errausketa hondakinak tratatzeko eredu gisa eta era berean hondakinak Portland Valderrivasek Olaztin duen porlandegiko labeetan erretzea ezatea.

2) Nafarroako Gobernuari, errausketa, energia balioztatzea edo hondakinak erretzea bai energia balioztatzeko planta berezkoetan hala nola porlandegietan aintzat hartzen duen hondakinak kudeatzeko edozein jarduera baztertzeko eta horrelako jarduera bat ahalbideratuko lukeen inolako baimenik ez emateko eskatzea.



3) Hartutako erabakien berri Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari, Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiari, Cementos Portland Valderrivas enpresari eta hedabideei helaraztea.

6.-TTAKUN KULTUR ELKARTEA: KANPALDI IBILTARIA ANTOLATZEKO ESKAERA.

Ikusirik Ttakun Kultur Elkartek kanpaldi ibiltaria antolatzeke aurkeztutako eskaera, uztailaren 17ko eta 18ko gauak pasatzeko toki bat eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ttakun Kultur Elkarteari uztailaren 17 eta 18an eskolako gimnasioa erabiltzeko baimena ematea, aurretik 150,00 euroko fidantza jartzeko baldintza pean.

2) Ttakun Kultur Elkarteari gimnasioa garbia uzteko eskatzea.

7.-ARANTZAKO EHIZA KOTOA.

Idazkaria adierazi du Ingurugiro eta Ur Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren 693/2012 Ebazpenaren bidez baimendu duela Arantzako ehiza barrutia.

Kontuan izanik ordenazio plana ez dela bukatu baino bai hacia dela eta hori Usua Toki Ehiztariak Elkarteari kontura dela.

Hori dela eta aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako ehiza probetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea eta Usua izeneko Tokiko Ehiztariak Elkarteari behin betiko esleipena zuzenean ematea, onartutako baldintza pleguaren arabera.

2) Nafarroako Gobernuak Ehiza eta Arrantza Zerbitzuari jakinaraztea Usua Tokiko Ehiztariak Elkarteari Identifikazio Fiskaleko Zenbakia:G31397128 dela eta lehendakaria Xabier Zugarramurdi Alzuri jauna dela (Larreta karrika, 5. 31790 Arantza. Telefonoa: 948.634179.)

8.-2012KO BESTAK.

Ikusirik Besta Batzordeak prestatutako 2012ko bestetako egitaraua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2012ko bestetako egitaraua onartzea.

9.-UDALEKO ARKITEKTOEN TXOSTENAK.

Gaia hau mahai gainean utzi da gehiagi aztertzeke.

10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 51etik 56. arte).

11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna ateri da bilera aretotik.

Gai zerrendatik kanpo eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik ondorengo gai hauek aztertu dira:

12.- OSASUNBIDEKO MURRIZKETEN KONTRAKO ADIERAZPENA

Ikusirik Gobernuak murrizketen kontrako adierazpena:

“Espainiako Gobernuak funtzio publikoaren inguruan hartu berri dituen neurrien aurrean, gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Kalitatezko zerbitzu publikoa ez dira bermatuko klaseko ratioak haundituz, osasun etxe tikietakozko zerbitzuak arriskuan jarriz ezta bestelako neurri kaltegarriak aplikatuta ere.

Orain arte Nafarroan etorkizunaren zutabe nagusia izan diren eta gizarte ongizatearen berme diren zerbitzu publikoak mantentzea aldarrikatzen dugu.

Horregatik, eskatzen diogu Nafar Gobernuari, Nafarroak dituen eskumenetan oinarriturik, ez ditzala indarrean jarri gobernu zentraletik hartutako erabakiak.

Gure etorkizuna, eta gizartearen ongizatea jokoan daudelako kalitatezko zerbitzu publikoak zaindu behar ditugu.

Hau dela eta, ekainaren 23an, egerdiko 12:00etan, Elizondoko plazatik ateriko den manifestazioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

ETORKIZUNAREN ALDE.

NEURRI MURRIZTATZAILERIK EZ.”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako adierazpena onartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Jaime Iturria Mitxelena jn.

